



Neurri egokirik hartu ezean, iazkoa **halako bi** izango da aurtengo zorra.

(...bi aldiz handiagoa izango da ...)





halako + zenbatzailea = **baino** zenbatzailea **aldiz/bider ...-ago**

- Italiako esportazioen balioa ingelesena **halako bost** izan zen.
- Bonbilla halogenoak goritasun-lanparak **halako bi edo hiru** kostatzen dira.

- Italiako esportazioen balioa ingelesena **baino bost aldiz handiagoa** izan zen.
- Bonbilla halogenoak goritasun-lanparak **baino bi edo hiru aldiz gehiago** kostatzen dira.



- * Bonbilla halogenoak goritasun-lanparen **en bikoitza** edo **hirukoitza** kostatzen dira.
- * Bonbilla halogenoak goritasun-lanparen **en halako bi** kostatzen dira

Ikus:

- EIMA (2011). Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak (pdf, 1564 KB) [5.7.5 Multiploen adierazpena: <<bi halako>> eta <<halako bi>>ereduak; 140. or.]
- Berria Estilo liburua: “*bikoitz, hirukoitz...*” (online argitalpena)



Konparazio-burua ageri denean:

- ...**halako** + zenbatzailea

- Urte hartan, **aurreko mendekoa halako bi** izan zen urteko hazkunde-ehunekoa.

- Urte hartan, **aurreko mendekoa baino bi aldiz handiagoa** izan zen...

- *Urte hartan, **aurreko mendekoaren bikoitza** izan zen...

- Zuk halako hamar** dakit horrelako kontuez.

- *Zuk dakizunaren **bikoitza**...

- Suedian, **sortzen duten haize-energia halako hamabost** energia eskuratzen dute trukaketa geotermikoaren bidez.

- CFL bonbillek **ohiko bonbillek halako bost** argi ematen dute.

- Isuriaren gehieneko emaria ezin da izan **eguneko batez besteko emaria halako bost**.



Konparazio-burua ageri ez denean:

•...zenbatzailea + **halako**.../...**halako** + zenbatzailea...

• **Hogei halako/halako hogei** handitu dezake erretinak bere tamaina.

• ... hogei aldiz handitu...

• #... **hogeiz biderka** dezake bere tamaina.

• Ordu horretan, ETB 1-ek **hiru halako/ halako hiru** gehitzen ditu ikus-entzuleak.

• #... **hiruz biderkatzen** ditu ikus-entzuleak.

• Helburua konpostajea **hamar halako/halako hamar** handitzea da: 5.000 tonatik 50.000 tonara urteko.

• Iaz, 3.000 € gastatu genituen oporretan; aurten, **bi halako/ halako bi**: 6.000 €.



Adibide gehiago

- **erlatibo-perpauza** + **halako**
 - 1.700 plano baino gehiago ditu filmak: **Hollywoodeko edozein filmek garai hartan zuen halako bi plano baino gehiago.**
 - **Laser-pultsuak igorri baino lehen zeuden halako hogei tanta zeuden pultsuak igorritakoan.**
 - **Komeni den halako bi gatz** jaten du jendeak.
 - **Altzariak benetan balio zuten halako bi eta gehiago** ordaindu zenuten.
 - **Maitemindu egin zuen, pozoi sarkorraren antzera, eta gorroto du orain, orduan maite zuen halako hiru.**

Jimenez, Irati (2010). *Atsekabe zaitut*. Txalaparta.

Adibide gehiago

- **halako** + **izenondoa**
 - Lurrekoa **halako hamar sakon** den ozeano bat aurkitu dute.
 - Putzu horretan, 314 g/l-ko gatz-kontzentrazioa du urak; alegia, itsasokoa **halako hiru gazi** da.
 - Katea **halako bi luze** den altzairuzko kable bat erabiltzen da eginkizun horretan.
 - Kaletik sartzean, **bi halako ilun** zirudien gelak.
 - **Bi halako handi** eta **hiru halako astun** da.
 - Françoise, bost minutu lehenago etorri bazina, Imbert andrea ikusiko zenuen kalean barrena, zainzuri ikaragarri lodi batzuk aldean, Callot amandrearenak **halako bi lodi**, *gutxienez...*

Proust, Marcel (2010). *Denbora galduaren bila I. Swann-etik*. Alberdania-Elkar. Itzul.: Joxe Austin Arrieta



Adibide gehiago

- **halako** ...+ **atzizkia**, mugagabeen jokatua
 - Gizonei **halako hamar emakumeri** erasaten die tiroide-arazoak.
 - Gotorlekuan ziren **halako lau soldaduk** eraso zieten.
 - Gorroto nauten **halako bi pertsonak** maite naute.
 - Sailkapen orokorrean, urlia izan da lehenengoa, berendiak lortu dituen **halako bi punturekin**.



Adibide gehiago

- **halako** + **izen zenbakaitza** [nolako, zenbateko, zer]
 - Europar **halako biko langabezia-tasa** dago Espainian.
 - Nolako/zenbateko/zer langabezia-tasa dago?
 - #Zenbat langabezia-tasa dago?
 - Enparantza zaharrak **halako hiruko zabalera** du berriak.
 - Baimendua **halako biko abiaduran** zihoan trenak.
 - Higiezinak jarduerak **halako lau** **negozio-bolumena** sortzen du hotel-jarduerak.
 - **Halako biko altueratik** botatzen bada bola bat, bola horrek ez du **halako biko denbora** beharko lurrera heltzeko.
 - Galaxia beste edozein galaxiatatik **halako biko distantziara** dago.